

Ganbarako kuadroa

Orain dela urte batzuk hau pasa zitzaidan udako oporretan.

Bazen garaia! Udako oporrak iritsi ziren!

Baina nire gurasoak lanean zeuden eta ni urtero bezala, amonaren etxera joan nintzen 15 egun pasatzera. Ze aspergarria!

Bueno ba ,azkenean hantxe nintzen amonaren etxe zaharrean.

Nire logelan sartu, maletak utzi eta zelaira joan nintzen baloiarekin jolastera. Baina halako batean, nik tiro egin, ganbarako leihoa hautsi eta bertan gelditu zen baloia mugitu gabe. Orduan, ganbarara igo eta baloia hartzera joan nintzen. Dena oso ilun zegoen. Han zegoen pilota! Pilotarengana urbildu eta, koadro bat! Gizon bat agertzen zen margotua, herrixka batetik urruntzen.

Eta ideia bat bururatu zitzaidan, amonarengana joatea koadroaren jatorria zein zen jakiteko. Ganbaratik jaitsi, koadroa erakutsi eta triste jarri zen.

-Zer duzu amona?- galdetu nion. Berak, aulkian exertzeko, adi egoteko eta ondo entzuteko esan zidan. Orduan, historia bat kontatzen hasi zen.

Gu, koadroan agertzen den gizona eta ni, behartsuak ginen, izugarri maite ginen baina ez genuen dirurik. Zin egin zidan inoiz ez nuela goserik pasako. Baina, horretarako, herri txiki polit hartatik denbora baterako atera beharko zuela esan zidan.

Egunak pasa, egunak etorri, oraindik gizona ez zen agertu eta haurdun nintzela ohartu nintzen.

Nire amonari moztu, eta haxe esan nion:

-Orduan, koadroko gizona nire aitona da! Eta nire amaren aita!

Orduantxe konturatu nintzen gizon hura nire aitona zela eta oso pozik jarri nintzen.

Baina beti izan dut zalantza, zergatik ez da nire aitona etxera itzuli? Oraindik ez dakit, baina, badakidana da, inoiz ezin dela esperantza galdu, nork daki egun batean ate joka etorriko den.

Orain nire amonaren etxera joaten naizenean inoiz ez dut esaten aspergarria dela, esaten dudan gauza bakarra amonarekin oso gustura egoten naizela da.

NAHIA UGARTE